





Lasserre lehendakari
hautatu du aho
batez Hautetsien
Kontseiluak / 8



Irureta: «Elkarrizketa
bai, baina jokatzeko
era nik finkatzen
dut beti» / 18



Mikel Diaz Alabaren
koadroak estreinakoz
ikus daitezke
Madrilgo Arcon / 23

Egunkaria

Ostirala, 1995eko otsailaren 10a / VI. urtea / 1.293. zenbakia / Salneurria: 110 pta. / 5,5 libera

DANTZA

Kapitol baleta Baionan bihar

Txaikovskik, Prokofievek eta
Piazzollak konposatutako piezak
dantzatuko ditu bihar Capitol
baletak Baionako antzokian,
iluntzeko bederatzietan. / 24

Eustatek beste ikerketa bat egitea proposatu dute PP, PSE eta UAK

Euskarak Araban bizi
duen egoera aztertzeko bi-
garren ikerketa Eustatek
egitea proposatu zuten
atzo PPK, PSE-EEk eta
UAK. Ikerketa Eustatek
egitearen alde agertu diren
alderdiok duela aste ba-
tzuk kontrako iritzia ba-
zuten ere, atzo Eustaten
«gaitasunaz zalantzarik
ez» dutela adierazi zuten,
baina erakunde honek
ikerketa egiteko astirik ez
balu Amando de Miguelen
enpresak soilik egingo lu-
ke lana. / 12

Arafaten eta Rabinen arteko bilerak huts egin du

Yitzhak Rabin Israelgo
lehen ministroak eta Iasser
Arafat PAEko lehendaka-
riak bake prozesua indar-
tzeko atzo egin zuten bile-
rak porrot egin du. Iasser
Arafatek 500.000 palesti-
narrak duela hiru astetik
pairatzen duten setioa al-
txatzeko eskatu zion Rabi-
ni, baita Israelen dauden
preso palestinarrak aska-
tzeko ere. Rabinek ez zuen
buruzagi palestinarraren
eskaera bakar bat ere onar-
tu. / 16

Ertzaintzak astindu ondoren 68 urteko gizona hil zen infartuz atzo Ondarroan

Gasteizko Barne Sailak ukatu egin du ertzainek tratatu txarrik eragin ziotenik

Ertzaintza Ondarroako (Biz-
kaia) kale batean bi gazte atxi-
lotzen ari zenean agenteei euren
jarrera aurpegiratzera hurbildu
zen 68 urteko gizona, Imanol
Lertxundi, uniformatuek astindu
eta handik laisterrera infartuz hil
zen, lekukoek emandako ber-
tsioaren arabera. Gasteizko Bar-
ne sailak ukatu egin zuen hilda-
koari tratatu txarrik eman zitzaio-
nik eta gertakaria ikerpen judi-
zialaren esku geratzen dela ira-
garri zuen.

Ertzaintzak atxilotutako bi
gazteak megafonia zeraman au-
tomobil batean zihoazen arra-
tsaldean, ostegunero bezala,
Amnistiaren alde egin behar zen
manifestaziorako deialdia egi-
nez. Gertakariok ari zirenean
zenbait jende protestatzera hur-
bildu zen eta ertzainak kolpeka
hasi ziren. Minutu batzu geroa-
go, atxilotutakoak Ondarroako
komisaldegian zeuzkatenean,
protestaka ari zirenak harako bi-
dea hartu zuten eta hantxe eman
zion bihotzekoak Imanol Ler-
txundiri.

Amnistiaren Aldeko Batzor-
deek (AAB) greba konbokatu
dute gaurko Ondarroan eta bai
goiz eta bai arralderako manis-
fazio deialdiak zabaldu ditu.
Bertako udalak ere, Osoko bilera
egingo du arratsaldeko
7,30tan. / 8



Calvoren heriotzari buruzko epaiketa hasi da

1993ko abuztuan Ertzaintzak Arkauten duen egoitzako ziegan hil zen Juan Calvoren kasuari buruzko epaiketaren lehen eguna izan zen atzo. Akusatutako zortzi ertzainek azaldu zuten, ez dute uste atxilo-
tuaren kontra erabili zituzten espraiek eta emaniko kolpeek eragin zutenik Juan Calvoren heriotza. De-
fentsak, ordea, gasez beteriko ziega batean 40 minutu luzez itxita eduki eta bertatik irteten ez ziotela utzi
nabarmendu zuen. Epaiketa egiten ari zen bitartean, Amnistiaren Aldeko Batzordeek Ertzaintzak torturatu
egiten duela salatzen. / 10

Perez Mariño PSOEko diputatuak Gonzalezen dimisioa eskatu du

'Nazioaren egoerari buruzko
eztabaidaren' ondoren atzo
Madrilgo Diputatuen Kongre-
suan ebazpenak zehazten ari zi-
rela, Ventura Perez Mariño
PSOEko diputatu independente
eta eszedentzian den epaileak
Felipe Gonzalezen dimisioa

eskatu zuen. Ebazpen ekital-
dian, IUK 'GAL auzia' ikertze-
ko batzorde parlamentarioa es-
katu zuen eta EAJ bat etorri zen,
nahiz eta osoko bilkuran aurrera
ez atera. PSOE eta CiUren pro-
posamena izan zen onartutako
bakarra. / 4, 6 eta 14

Xabier Maiza PSE-EEkoak utzi egingo du alderdiko zuzendaritza

'GAL auzian' PSOEak azaldu
duen jarrera dela eta, Xabier
Maiza EEtik PSE-EEra igaro
eta alderdi sozialistaren Gipuz-
koako zuzendaritzan sartu ze-
nak utzi egingo du alderdi ba-
rruko kargua, afiliatuta jarrai-
tuko badu ere, EGUNKARIARI

adierazi dionez. Xabier Maiza
Felipe Gonzalezen alderdian
sartzeari oihartzun mediatiko
handia eman zitzaion, EE ohiko
talde oso baten barnean egon
arren *polimili* ohi eta Iparral-
dean errefuxiatu izana ere ba-
delako. / 6

BESTERIK

G I Z A R T E A

Baionako ikasleek
manifestaldia egin
dute / 11

N A Z I O A R T E A

Ieltsinek kargutik bota
ditu Defentsako bi
buruzagi / 17